

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN
AKTA**

**ACTA
FORO AGENDA LOCAL 21**

Bilera-mota: ohikoa
Eguna: 2005-11-10
Ordua: 18:00etan
Tokia: Bikuña Jauregia
Bertaratuak: 53 herritar

Tipo de Convocatoria: ordinaria
Día: 10-11-2005
Hora: 18:00
Lugar: Palacio de Bikuña
Asistentes: 53 personas

Aztergaiak:

1. Arau Subsidiarioen Aurrerapen agiria.
2. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Arau Subsidiarioen Aurrerapen agiria.

Hasteko, Alkate jaunak deialdiaren helburua zein den adierazi die elkartu direnei.

Segidan, David Pon jaunak, bilera bideratuko duenak, gaurko saioaren dinamika zein izango den azaldu du.

Arau Subsidiarioak idatzi dituen taldeko ordezkari Santi Peñalba jaunak Aurrerapenaren edukiaren azalpen laburra egin du, oinarritzko edukiak ongi uler daitezzen eta planoetan nola irakurtzen diren garbi ikus dadin.

Ondoren, bertaratu diren herritarrei 7 lantalde osa ditzatela eskatu zaie. Talde bakoitzari bi plano eman zaizkio (bat hirigunekoa eta bestea landaretza eta lur-erabilerena). Parte-hartzaile bakoitzak entzundakoaz hausnartzen du lehenbizi eta segidan, bere iritzia azaltzen dizkio taldeko gainerako kideei. Planteamendu desberdinak adostu ondoren, talde bakoitzak proiektuan ikusten dituen "indarguneak" zehazten ditu post-it berdeak erabiliz; "ahulezietarako" post-it gorriak erabiltzen ditu taldeak eta "zalantzazko" gaiak post-it horiekin azaltzen ditu.

Orden del Día:

1. Avance de las Normas Subsidiarias
2. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1.-Avance de las Normas Subsidiarias.

En primer lugar el alcalde realiza una presentación sobre el objetivo de esta convocatoria.

A continuación David Pon, en su labor de facilitador de la reunión, explica cuál va a ser la dinámica de la sesión.

En representación del equipo redactor de las Normas Subsidiarias, Santi Peñalba, realiza una exposición sintética sobre el contenido del Avance al objeto de facilitar la interpretación y comprensión de los contenidos básicos y su reflejo en los planos.

Seguidamente se solicita a las personas asistentes que formen 7 grupos de trabajo. A cada grupo se le facilitan dos planos (uno de la zona urbana y otro de vegetación y usos del suelo). Cada participante realiza una breve reflexión personal exponiendo posteriormente sus opiniones al grupo. Tras consensuar los diferentes planteamientos, cada grupo señala las "fortalezas" que aprecia en el proyecto (post-it verde), las "debilidades" (rojo) y aquellos aspectos que les suscitan "dudas" (amarillo).

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN
AKTA**

**ACTA
FORO AGENDA LOCAL 21**

Jarraian, bateratze-lana egiten da eta talde guztien iritzia jasotzen dira. Ondoko hauek dira lortu diren emaitzak:

INDARGUNEAK:

- Industria-gunea udalerraren iparraldean kokatzea erabaki egokitzat hartzen da.
- San Martin auzoko gunea berreskuratzeko aukera eskaintzen da.
- Urtatzolako etxebizitzak.
- Mantxolako etxebizitzak.

AHULEZIAK:

- Proposatutako zeharbidearen trazadura.
- Zaldun proposatu diren etxebizitzetan gatazka sortzeko arriskua (lantegietatik oso gertu geratzen direlako).
- Mantxolako etxebizitzak.
- Olaberriako industrialdea.
- Berdegune estandarrek ez funtzionalak (adibidez: Gaztetxetik Domingo Agirre plazara doan bide ondokoa).
- Kalitatezko landaretza erabiliz hiri-inguruko "gerriko berdea" sortzeko planteamendua ez egitea.

ZALANTZAK:

- Museoa paper-fabrika zegoen tokian kokatzea.
- San Martin auzoan etxebizitzak egitea: urrun geratzen dira,...

Posteriormente se realiza una puesta en común para conocer las opiniones de todos los grupos, llegando a las siguientes conclusiones:

FORTALEZAS:

- Ubicación adecuada de la zona industrial al norte del municipio.
- Oportunidad de recuperar la zona de San Martin.
- Viviendas Urtatzola
- Viviendas Mantxola

DEBILIDADES:

- Trazado de la travesía propuesta.
- Riesgo de conflicto (por la cercanía de las industrias) en las viviendas propuestas en Zaldu.
- Viviendas en Mantxola
- Industrialdea Olaberria
- Zonas verdes estándares no funcionales (ej: zona acceso desde Gaztetxe a plaza Domingo Agirre)
- No planteamiento de la creación de un "cinturón verde" periurbano con vegetación de calidad.

DUDAS:

- Ubicación museo en Papelera.
- Viviendas en San Martin: alejadas, cuestras...

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN
AKTA**

**ACTA
FORO AGENDA LOCAL 21**

- Zeharbidea: talde batek ondo baloratzen du Zaldu inguruan zeharbidearena eta hortik aurrerako trazadurarekin ez dator bat.
- Proposatutako etxe-kopurua.
- Telleriarte: etxebizitza-dentsitate gutxiago?.

Era berean, ondoko PROPOSAMENAK egin dira:

- Urtatzolan etxebizitzak egiteak orain bertan dauden baratzak desagertzea ekarriko du. Herriaren beste tokiren batean baratzak jartzeko leku bat egokitzea proposatu da.
- Legazpiko sarrera txukuntzea eta duintzea: lantegietako fatxadak hobetzea...
- Saihesbidea paper-fabrika zegoen tokitik bideratzea.
- Etxebizitzak Telleriarten
- Kale Nagusia eta beste gunek batzuk oinezkoentzako gunek bihurtzea.
- Iparraldean industriako sektorerako ekipamenduak bateratzea.
- Mugikortasunaren kudeaketa hobetzea: aparkalekuak Urola kaleko industrialdetan.
- Zaldutik Egialdera joateko bidea egitea.
- Saihesbidea Arrasetatik.
- Hirigunean bizikletak ibiltzeko bideak egokitzea.
- Paper-fabrika zegoen tokian etxebizitzak egitea.
- Brinkola auzoa berreskuratzea.

- Travesía: un grupo valora positivamente la actuación en la zona de Zaldu y de forma más crítica la actuación en el resto del trazado.
- Número de viviendas propuesto.
- Telleriarte: ¿menor densidad de vivienda?

Asimismo se realizan las siguientes PROPUESTAS:

- La realización de viviendas en Urtatzola conllevará la desaparición de las huertas existentes en dicha zona. Se propone desarrollar huertas de ocio en otra zona adecuada.
- Dignificar la entrada a Legazpi: mejorar fachadas de las fábricas...
- Variante por Papelera
- Viviendas en Telleriarte
- Peatonalizar Nagusia y otras zonas
- Unificar equipamientos sector industrial zona norte.
- Mejorar gestión movilidad: aparcamientos zona industrial calle Urola.
- Vial de Zaldu hacia Egialde
- Variante Arraseta
- Habilitación carril-bici dentro del municipio.
- Ubicación de viviendas en Papelera.
- Regeneración Brinkola.

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN
AKTA**

**ACTA
FORO AGENDA LOCAL 21**

Hauek dira adostasun gehien lortzen duten jarduketak:

- ✓ Adostasuna (7 talde) **proposatu den zeharbidearen trazaduraren aurka**. Horietako talde batzuk ondo ikusten dute Zaldun proposatu dena.
- ✓ Adostasun handia (6 talde) **industria-gunea udalerrriaren iparraldean kokatzearekin**.
- ✓ Adostasuna (6 talde) **San Martin auzoa eta Urtatzola izeneko guneak berreskuratzeko aukerarekin**; hala ere, talde batek zalantzak diru irisgarritasuna dela-eta.

Parte hartu duten taldeen artean desadostasun nabaria sortzen duen jarduketarik ez da antzeman. Hala ere, hainbat kontraesan eman dira eta horietatik ondoko hauek azpimarra daitezke:

- ✓ Etxebizitzak Mantxolan: bi taldek indargunea dela esan dute eta talde batek ahulezia dela dio.
- ✓ Etxebizitzak Telleriarten: talde batek ondo ikusi du eta beste batek zalantzak dituela esan du.

Juan Ramon Larrañaga jaunak bilera honen akta Arau Subsidiarioak idatzi dituen taldeari bidaltzea proposatu du.

2.- Eskariak eta galderak.

Ez da izan ez eskaerarik, ez galderarik.

Las actuaciones que mayor consenso suscitan son:

- ✓ Unanimidad (7 grupos) en el **desacuerdo con el trazado de la travesía propuesta**. Algunos grupos estiman positiva la actuación en la zona de Zaldu.
- ✓ Alto consenso (6 grupos) en cuanto a la **ubicación adecuada de la zona industrial al norte del municipio**.
- ✓ Consenso (6 grupos) en cuanto a la **oportunidad de recuperar las zonas de San Martin y Urtatzola**, aunque un grupo muestra sus dudas sobre accesibilidad.

No se detectan actuaciones en las que exista un marcado desacuerdo entre los grupos participantes. No obstante, por haberse producido alguna contradicción, puede destacarse:

- ✓ Viviendas en Mantxola: dos grupos estiman que es una fortaleza y un grupo lo entiende como debilidad.
- ✓ Viviendas en Telleriarte: un grupo estima que es positivo y otro muestra sus dudas.

Juan Ramón Larrañaga propone que el acta de esta reunión sea remitida al equipo redactor de las Normas Subsidiarias.

2.-Ruegos y preguntas.

No ha habido ni ruegos ni preguntas.